

## KLASEKO OINARRIZKO ARAU OROKORRAK

- 1) Klasera egunero etortzea derrigorrezkoa da.
  - Eskola egutegia zein ikastetxeko ordutegia errespetatu egin behar dira. Puntueltasuna kontrolatuko da.
  - Asistentzia faltak **idatziz** justifikatu behar dira; **gurasoek sinatutako justifikantea** ekarri behar da ahalik eta lasterren. Hala ere, azterketa batera agertu ezean, etsamina beste egun batean egin ahal izateko beharrezkoa izango da **mediku-egiaztagiria** aurkeztea.
  - Ikastolatik ateratzeko (medikuarenera joateko...), ikasleek gurasoek idatzita eta sinatutako egiaztagiria ekarri beharko dute eta gurasoek zentrotik bakarrik ateratzeko baimena sinatu badute ikaslea bakarrik aterako da. Horrela ez bada, gurasoak Idazkaritzatik bere bila pasatuko dira.
  - Ikaslea Ikastolan gaixorik jartzekotan, irakasleari esan eta honek gurasoei deituko die jakinarazteko. Gurasoek etxera joango dela erabakitzen badute, aurreko puntuan azaldutako prozedura jarraituko da.
- 2) Zerbait apurtzekotan edo zikintzekotan, egin duenak erosi, konpondu edo garbitu beharra dauka. Nor izan den agertzen ez bada, klase osoa arduratuko da.
- 3) Irakasle, ikaskide edo Ikastolako edozein langilerekiko errespetu faltak oso larritzat hartzen dira eta ondorioak izango dituzte Ikastolako Barneko Araudia aplikatuz.
- 4) Ikastola eraikuntzaren barnean (klasean, pasabidean, eskaileretan, komunean...) ezin da ezer jan ez eta edan ere.
- 5) Ikasleek ezin dituzte ez klaseko ez eta pasabideetako leihoak zabaldu irakasleren baimenik gabe.
- 6) Zakarrontziak eta birziklatzeko kutxa erabili behar ditugu. Zorua ez dago paperak eta abar botatzeko.
- 7) Ikastolaren eremu guztietan (geletan, komunetan, jantokian, patioetan, aldageletan ...) eta ikastolak antolatutako kanpo ekintzetan ezin da eskuko telefonorik ezta MP3, MP4, iPod eta abarrekorik piztuta izan ezta begibistan ere; horrela izatekotan kendu egingo da eta gurasoei emango zaie.
- 8) Ikastolaren eremuan eta ikastolak antolatutako kanpo ekintza guztietan erretzea debekatuta dago.
- 9) Antolatzen diren ekintza guztietan (kultur-ekintzak, txangoak, egonaldiak...) parte hartzea derrigorrezkoa da.